

“A-14 LOIDIBARREN” HIE-KO 1. EU-ARI DAGOZKION P6 PARTZELAREN ETA PARTZELA MUGAKIDEEN URBANIZAZIO OSAGARRIRAKO (I. FASEA) OBREN KONTRATUA ARATUKO DUEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA

1. *klausula.*- **KONTRATUAREN XEDEA**

1. Kontratuaren xedea “A-14 Loidibarren HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarrirako (I. fasea)” obrak gauzatzea da, José Miguel Martín Herrera jaunak (Gurbain SLP) idatzitako proiektu teknikoaren arabera, I. Eranskinean zehazten den moduan.

2. Aipatutako proiektuak, haren baldintza teknikoen agiriek, planoek eta prezio-taulek, klausula administratiboan dokumentu honekin batera, kontratuzko balioa izango dute.

2. *klausula.*- **ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA FORMA**

“A-14 Loidibarren” HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarrirako (I. fasea) obren kontratua adjudikatzeko forma prozedura irekiarena izango da, zeinetan interesaturik dagoen edozein enpresarik aurkezten ahalko baitu proposamena, baina ezingo da kontratuaren terminorik negoziatu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak 141. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren proposamenak eta zehaztapenak ebaluatzeko, kontratuaren xedearekin zuzenean loturiko hainbat irizpideri erreparatu beharko zaie, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoaren 134-1 artikuluen arabera eta baldintza-agiri honen laugarren klausularen arabera.

Espedientearen tramitazioa urgentziazkoa izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak 96. artikuluan xedatzen duen moduan.

3. *klausula.*- **KONTRATUAREN AURREKONTUA, LIZITAZIOKO OINARRIA ETA PREZIOA**

1. Kontratu honen aurrekontua, guztira, laurehun eta laurogeita hamabost mila eta berrogeita hemeretzi euro eta hamazazpi zentimokoa da (495.059,17.-€).

Prezio hori honela desglosatua geratzen da: balio estimatua laurehun eta hemeretzi mila bostehun eta berrogeita bat euro eta hirurogeita zazpi zentimo (419.541,67.-€), eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga hirurogeita hamabost mila bostehun eta hamazazpi euro eta berrogeita hamar zentimo (75.517,50.-€).

Kalkulu horren barruan sartzen dira kontratuzko dokumentuen arabera eta indarrean dagoen legeriaren arabera adjudikatarioaren kontura diren gastu eta ebaluazio-faktore guztiak, bai halaber edozein motatako tributuak. BEZari dagokion kopurua aparteko kontu-sail modura agertuko da.

Lizitazioko aurrekontu oinarritzkoa gaindituz aurkezten diren proposamenak automatikoki errefusatuko dira.

Kontratuaren prezioa kontratuaren prestazio osoari oro har aplika dakizkiokeen prezioen terminoetan bakarrik formulatuko da, ez baita onartuko prestazioaren osagaiei edo haren unitateei buruzko prezio unitariorik aurkeztea.

4. klausula.- **ADJUDIKAZIORAKO OINARRI GISA BALIOKO DUTEN IRIZPIDEAK**

Proposamenak ebaluatzeko eta eskaintza ekonomikoki onuragarriena zein den erabakitzeke, adjudikazioko hainbat irizpide hartuko dira aintzat:

A. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak

- Prezioa, **25 puntu**. Lizitazioko oinarrian beherantz hobetzea. Kalkulatzeko, eskaintzarik hoberena aurkezten duen proposamenari esleituko zaio puntu-kopuru maximoa, eta 0 puntu lizitazioko oinarria berdintzen duen proposamenari; gainerakoak, berriz, interpolatu egingo dira.
- Kontratua gauzatzen den denbora guztian Lasarte-Oriako pertsona langabetuak eta Enpleguko Zerbitzu Publiko batean eskaintza generikoa aurkeztearen bidez hautaturikoak kontratatzea: **40 puntu**.
- Lasarte-Oriako pertsona langabetuak kontratatzeaz den bezainbatean, obrak hasterakoan aurkeztuko da enplegu publikoko zerbitzu baten kudeaturiko eskaintza generikoaren bidez eginiko hautaprosesuari dagokion dokumentazioa, zeina Udaleko enplegu-dinamizatzaileak aztertuko eta informatuko baitu, kontratua betetzearen ondorioetarako.

B Balio-irizpen baten arabera ponderatzekoak diren irizpideak

- Obra zehatzaren memoria eta lanen programa, obraren *Planningean* zehaztuko delarik obrarekin sorrarazten diren afekzioak: **20 puntu.**

Era berean, obrak gauzatzen diren bitartean afekzioak minimizatuko dituen trafiko alternatiboaren estudioa aurkeztu beharko du, ebaluatua izateko.

- Obrari esleituriko pertsonala, haren kualifikazio profesionala eta funtzioak zehaztuko direlarik. Obrako ekipoan sartuko da kide bat zeinaren lana izango baita obrak sorrarazten dituen afekzioez informatzea eta haien koordinatzea (zirkulazio-etenaldiak eta lehendik dauden instalazioei eragindako afekzioak, aldeztu aurretik herritarrei iragarrita): **15 puntu.**

5. klausula.- OBREN FINANTZIAZIOA

Proiektua udalean indarrean dagoen aurrekontuko “Urbanizazio Osagarria A-14 Loidibarren (P-6) I. Fasea” izeneko 1.0802.601.01511.20 kontu-sailaren kargura finantzatzen da.

6. klausula.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA OBREN GAUZATZEA

- 1.- Kontratuaren iraupena kontratua behin betiko adjudikatzen den egunetik behin betiko bermea itzultzen den egunera bitartekoa finkatzen da.
- 2.- Obrak gauzatzeko epe orokorra hiru hilabete eta erdikoa (3,5) izango da, zuinkatzea egiaztatzeko akta sinatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Akta adjudikatariora edo haren ordezkaria aurrean dela egingo da, kontratua formalizatzen denetik gehienez ere hogeitun egun naturaleko epean, SPKLko 212. artikuluen eta APKLEOko 139 eta 140. artikuluen arabera eta haietan ezarritako ondorioekin. Aipatutako epe horren buruan, obrek amaiturik egon beharko dute.
- 3.- Obrak dokumentu honetan finkaturiko epean hasi, gauzatu eta bukatu beharko dira, eta adjudikatariora obligatua dago kontratua burutzeko finkaturiko epea betetzera.

7. klausula.- OBREN ZUZENDARITZA

- 1.- Obrak kontratuan estipulaturiko klausulei eta haren oinarri gisa balio duen proiektuari hertsiki lotuz egingo dira.

- 2.- Kontratazioko organoak, obren zuzendaritzaren bitartez, obra behar bezala gauzatzen dela ikuskatu, egiaztatu eta begiratuko du.
- 3.- Kontratista obligatua dago, obra gauzatzera ez ezik, eraikuntzan hauteman daitezkeen akats guztiez erantzutera, harik eta bermeko epea betetzen den arte.
- 4.- Kontratataren obrako delegatuak edo buruak teknikari tituluduna izan beharko du, antzeko izaerako obretan esperientzia egiaztatua duena.

8. klausula.- **OBREN PAGAMENDUA ETA LIKIDAZIOA**

- 1.- Kontratatistak eskubidea du benetan gauzatzen duen obra ordain diezaioten, hitzarturiko prezioen arabera, obren zuzendaritzak lista baloratuak oinarritzat hartuta hileroko egiten dituen egiaztagirien bitartez.
- 2.- Obren egiaztagiriak, kontratatistaren konformitatearekin edo erreparorekin, alkatearen ebazpenaren bidez onetsiko dira, eta pagamendua Korporazioaren Aurrekontu Orokorreko kontu-sailaren kargura egitea baimenduko da. Egiaztagiri horiek dagokien beheranzko murrizketarekin etorriko dira, baldin eta halakorik gertatu bada. Kontratatari egindako abonamenduek kontura egindako pagamenduen kontzeptua dute, bukaerako neurketan eta likidazioan gertatzen diren zuzenketei lotuak, eta inolaz ere ez dute inplikatzeko haien baitako obrak onesten eta onartzen direnik, gauzaturiko obren azken egiaztagiriaren ondorioz eta kontratuaren likidazioaren kontura.
- 3.- Errege-dekretuzko 13/2009 Lege urriaren 26koaren 17.5 artikuluan xedaturikoaren arabera, Udala obligatua egongo da obren prezioa kontratatari ordaintzera Udalak obren zertifikazioak jasotzen ditueneko egunaren hurrengo hogeita hamar (30) egun naturalen barruan.

Kontratatistek azpikontratastei egiteko enkargatu dizkieten zerbitzuengatik hitzartutako prezioa gehienez ere hogeita hamar (30) egun naturaleko epean ordaindu beharko diete, azpikontratatistak edo hornitzaileak egiten duen faktura kontratista nagusiak ontzat ematen duen egunetik aurrera kontatuta.

- 4.- Beharrezkoa gertatzen bada proiektuan jaso gabeko obra-unitateak gauzatzea eta materialak erabiltzea, edo haien aldean ezaugarri nabarmenki desberdinak dituztenak, horiei aplikatu beharreko prezioak Udalak finkatuko ditu, obren zuzendariak eginiko proposamena ikusita eta proposamen horri kontratatistak

audientziako tramitean eginiko oharkizunak kontuan harturik, gutxienez hiru egun balioduneko epean.

Prezio berriak, behin kontratazioko organoak onetsitakoan, proiektuaren prezio-tauletara inkorporatuztat joko dira ondorio guztietarako, alde batera utzirik SPKLaren 217.2 artikuluan ezarritakoa.

9. klausula.- **ARRISKUA ETA MENTURA**

Obraren gauzatzea kontratistaren arrisku eta menturara egingo da, eta hark ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango obretan gertatutako galeren, matxuren edo kalteen kausaz, ezinbesteko kasuetan izan ezik eta betiere berak zuhurtzarik gabe jokatu duelako ez bada, SPKLaren 199. artikuluan ezarritakoaren arabera.

10. klausula.- **BERMEKO EPEA ETA OBREN ONARPENA**

- 1.- Kontratistak 45 egun lehenagotik jakinaraziko dio Udalari zein den obrak burutzeko aurreikusitako eguna, haien harrera egin ahal dadin, eta hurrengo hilabetearen barruan egingo da obraren harrerako ekitaldia, zeinetara joango baitira Udala errepresentatzen duen fakultatibo bat, obraren zuzendaritza daraman fakultatiboa eta kontratista, fakultatibo batek urgatzia egoki baderitzo. Obrak egoera onean eta ezarritako preskripzioen arabera badaude, Udala errepresentatzen duen fakultatiboak onartuztat emango ditu, eta dagokien akta egingo da. Une horretan hasiko da bermeko epea, zeina urtebetekoa izango baita gutxienez, edo kontratuaren agirian ezarritakoa, seinalatzen badu eta ez bada ezarritako gutxienezkotik beherakoa.
- 2.- Bermeko epea bete aurreko 15 egunen barruan, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistaren eskariz, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du, SPKLko 218. artikuluan eta APKLEOko 163.ean eta hurrengoetan seinalaturiko ondorioekin.

Bermeko epea Administrazioak eragozpenik jarri gabe igarotakoan, iraungita geratuko da kontratistaren erantzukizuna.
- 3.- Baldin eta obrak onartzeko moduan ez badaude, horrela agerraraziko da aktan, eta haien zuzendariak seinalatu egingo ditu hautemandako akatsak, beharrezko instrukzioak zehaztuko ditu, eta horiek konpontzeko epea finkatuko du. Behin epe

hori igarotakoan, baldin eta kontratistak egina ez badauka, ematen ahalko zaio beste epe ezin luzatuzko bat, edo kontratua amaitua deklaritzen ahalko da.

- 4.- Harrera partzialak egiten ahalko dira erabilera publikorako entregatzeko moduan dauden obrako parte batzuen kasuan, baldin eta Udalak horrela baderitzo, SPKLaren 218-5 artikuluan xedaturikoaren arabera.
- 5.- Baldin eta, espedientean behar bezala motibaturiko interes publikoko arrazoi salbuespenezkoengatik, kontratazioko organoak erabakitzen badu obra efektiboki okupatzea edo erabilera publikorako zerbitzuan jartzea, harreraren egintza formala bete gabe bada ere, zirkunstantzia horiek konkurritzen direnetik gertatuko dira obraren harrerako egintzari berez dagozkion efektuak eta ondorioak, APKLEOko 168. artikuluan ezarritako terminoetan.
- 6.- Harrerako unean, bereziki egiaztatuko da ea kontratistak bete dituen ondoko betebehar hauek:
 - Obren azken txukunketa, kontratistak hasierako egoerara bihurtuak utzi beharko dituelarik obrek afektaturiko zonak.
 - Kontratua akatsik gabe betetzea.
 - Adjudikazioko irizpideak betetzea.
 - Obrak gauzatzeko baldintzak betetzea.

11. klausula.- **EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA**

- 1.- Baldin eta bermeko epea bukatu ondoren obra hondatzen bada eraikuntzako akats ezkutuengatik, kontratistak kontratua bete ez duelako, hark erantzungo du kalteengatik, harrerako egunetik kontatzen hasi eta hamabost urteko epean zehar.
- 2.- Epe hori inolako kalterik agertu izan gabe igarotakoan, erabat iraungia geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

12. klausula.- **PREZIOEN ERREBISIOA**

Kontratu honetan, adjudikatariorak ezingo du prezioak errebisatzeko eskatu, ez eta kontratua gauzaten duen bitartean prezioetan gerta litezkeen igoerengatik inolako kalte-ordainik eskatu ere.

13. klausula.- BEHIN BETIKO BERMEA

1.- Eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleak akreditatu egin beharko du adjudikazioko zenbatekoaren % 5eko bermea ezarri duela, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

2.- Bermea ez da itzuliko edo ezeztatuko harik eta bermeko epea mugaegunera iritsi eta kontratua askiesgarriki bete den arte.

Berme horrek erantzungo die Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoaren 8. artikuluan sarturiko kontzeptuei.

14. klausula.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA

Kontratu honen zenbatekoa dela bide, eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen 2/2000 errege-dekretu legislatibo ekainaren 16koak 25.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera, zeina indarrean baitago, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Lege urriaren 30ekoak Bosgarren Xedapen Behin-behinekoan ezartzen duen bezala, kontratatuko bada, ezinbesteko baldintza izango da lizitatzailleak ondoko sailkapen hau izatea:

MULTZOA	AZPITALDEA	KATEGORIA
C	6	c)
C	2	c)
I	6	b)

15. klausula.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu honen adjudikazioan parte hartzeko aukera izango dute obratzeko gaitasuna duten pertsona natural edo juridiko espainiar nahiz atzerriarrek, norberaren izenean edo enpresariaren aldi baterako batasun batean, baldin eta ez badira aurkitzen SPKLaren 49. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeke ezarritako debeku eta bateraezintasunetan, eta beren solbentzia ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badute. Azken baldintza horren ordean, dagokien sailkapena beharretsiko da, SPKLAN ezarritakoaren arabera beharrestekoa den kasuetan.

Gainera, pertsona fisikoak edo juridikoak enpresa adjudikatario izango badira, haien helburuak edo jarduerak erlazio zuzena izan beharko du kontratuaren xedearekin, eta haien organizazioak elementu pertsonal eta material nahikoak izan beharko ditu kontratua behar bezala gauzatzeko.

Europar Batasunetik kanpoko enpresa atzerriarrek, gainera, SPKLaren 44. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

16. klausula.- **BETEBEHAR TRIBUTARIOAK EDO SEGURANTZA SOZIALAREKIKOAK BETETZEA**

Kontratista obligatua geratzen da betebehar tributarioak edo Segurantza Sozialarekikoak, laboralak eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzkoak betetzera, eta horiek ez betetzearen erantzukizunetik libratua geratzen da Udala.

17. klausula.- **KONTRATUA EZ BETETZEAGATIKO PENALITATEAK**

- 1.- Kontratua betetzeari dagokionez, kontratista obligatua dago hura burutzeko ezarritako epe totalaren barruan konplitzera, bai eta epe partzialen barruan ere, baldin eta horrelakoak ezartzen badira elkarren segidan egiteko.
- 2.- Baldin kontratistak, berari lepora dakizkiokeen kausengatik, berandutzan inkurritzen badu epe totala konplitzeaz den bezainbatean, Administrazioak aukeran erabakitzen ahalko du edo kontratua deuseztatzea edo SPKLko 196.4 artikuluan xedatzen diren penalitateak ezartzea.
- 3.- Bermea galtzeak edo penalitateen zenbatekoak ordaintzeak ez dute salbuesten Udalak kalte-ordaina jasotzeko izan dezakeen eskubidea, kaltea kontratari lepora dakiokeen berandutzeagatik bada.
- 4.- Baldin eta berandutzea kontratistari lepora ez dakizkiokeen arrazoiengatik izan bada, SPKLko 197. artikuluko 2. puntuan xedaturikoa aplikatuko da. Nolanahi ere, kontratista berandutzeak ez du nahitaezko egingo Administrazioak aldeztu aurretik interpelatu edo jakinarazi beharra.
- 5.- Penalitateen eta berandutzaren zenbatekoa zertifikazioetatik eta, kasua hala bada, bermetik deduzituko da.

- 6.- Baldin eta ez-betetzea 19. klausulan adierazitako terminoetan pertsonala kontratatzeari badagokio, oso arau-hauste larritzat joko da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 102.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, betiere ez-betetze horrek ez badakar langabeziako egoeran ez dauden langile berrien kontratazioa langile berri gisa kontrataturiko guztien 50% baino gehiagokoa izatea.

18. klausula.- **KONTRATUA DEUSEZTATZEA**

Kontratuaren deuseztatzea SPKLaren 206.etik 208.era bitarteko artikuluetan ezarritakoak erregelatuko du, eta, bereziki obretako kontraturako, lege horren 220.etik 222.era bitarteko artikuluetan ezarritakoak, bai halaber APKLEOko 109.etik 113.era bitarteko artikuluetan eta 172.ean ezarritakoak.

19. klausula.- **KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Baldintza-agiri honi dagokion kontratua gauzatzeko baldintza berezia izango da kontratistak obrak gauzatzeko enplegatu behar duen pertsonal berria desenpleguko egoeran egotea.

Kontratua gauzatzen duen bitartean, enpresa adjudikatarioak, dagokion deklarazio egiaztagarria aurkeztuz, sorturiko lanpostuen berri emango dio Udalari, izen-abizenak eta DNI zenbakiaren edo atzerriko identifikazioaren zenbakiaren bidez identifikatuz, bai eta langile berrien alden eta gertatzen diren bajen berri ere.

Ondorio horietarako, okupaziorik gabeko enplegu-eskatzaille gisa dagozkien Enpleguko Zerbitzu Publikoetan inskribatuak dauden langileekin egindako edo egingo diren kontratuak bakarrik konputatuko dira.

20. klausula.- **PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

- 1.- Proposamenak Udaletxeko Sarrerren Erregistroan aurkeztuko dira, jendearentzako orduetan, HAMAHIRU (13) EGUN naturaleko epearen barruan, lizitazioaren iragarpena Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita. Lizitazioaren iragarpena berebat publikatuko da kontratatzailearen profilean.
- 2.- Proposamenak sekretuak izango dira, eta, horretarako, jendaurrean ireki behar diren unera arte izaera hori bermatuko duten bitartekoak arbitratuko dira.

- 3.- Interesatuena proposamenak Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritakoaren arabera izan beharko dira, eta lizitatuak proposamena aurkezteak inplikatu du baldintzarik gabe onartzen dituela kontratua arautzen duen baldintza-agirian ezarritako klausula horien guztien edukia, bai halaber proiektuarena, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.
- 4.- Lizitatuak bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, banakako proposamena aurkeztu badu, ezingo du beste enpresari batzuekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik izenpetu, eta ezingo da aldi baterako batasun bat baino gehiagotan agertu. Arau horiek haustea berekin ekarriko du hark izenpeturiko proposamen guztiak ez onartzea.
- 5.- Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresariak justifikatu egin beharko du zein egunetan ezarri duen igorpena posta-bulegoan, eta eskaintza igorri izana egun berean iragarri beharko dio organo kontratatzaileari, telex, fax edo telegrama bidez, kontratuaren xedearen izenburu osoa eta lizitatuaren izena idatziz jarrita. Bi baldintza horiek betetzen ez baditu, proposamena ez da onartuko baldin eta lizitazioaren iragarpenean adierazitako epea amaitzen den eguna baino geroago jasotzen badu kontratazioko organoak. Dena dela, esandako egunaren biharamunetik 10 egunen buruan proposamena jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

21. klausula.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak hiru gutun-estalki itxitan aurkeztuko dira, lizitatuak edo hura errepresentatzen duen pertsonak sinaturik, zeinetan adieraziko baititu notifikazioetarako helbidea, lizitatuaren izen-deiturak edo enpresaren merkatu-izena eta dagokion IFZ edo IFK, bai halaber gutun-estalkiaren izena eta idazkun hau: "A-14 Loidibarren HIEko 1. EUari dagozkion P-6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarria".

Gutun-estalkien izendapena honako hau da:

- **<<A>> gutun-estalkia, Dokumentazio administratiboa**
- **<> gutun-estalkia, Proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitekeen dokumentazioa**
- **<<C>> gutun-estalkia, Balio-irizpen baten arabera ponderatzekoa den dokumentazioa**

Gutun-estalki bakoitzean sartu beharreko dokumentuak jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztaturiko kopiak izan beharko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gutun-estalki bakoitzean, hurrengo agiri hauek sartuko dira, bai halaber horien zerrenda zenbakitu bat.

<<A>> GUTUN-ESTALKIA

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

a) Enpresariaren pertsonalitate juridikoa egiaztatzen duten agiriak

- 1.a) Pertsona juridikoak diren enpresarien obratzeko gaitasuna, zeina akreditatuko baita enpresa eratzeko eskrituraren bitartez edo, kasua hala bada, aldaberritzekoaren bitartez. Eskritura Merkataritzako Erregistroan inskribatua egongo da baldin eta betebehar hori eskakizun badu aplikatzekoa zaion legezko komertzialaren arabera. Horrela ez bada, obratzeko gaitasunaren akreditazioa enpresa eratzeko eskritura edo dokumentuaren bidez edota estatutuen edo fundazioko aktaren bidez egin beharko du. Horietan agertu beharko du zein arauk erregelatzen duten enpresaren jardura, eta, beharrezkoa denean, dagokien Erregistro Ofizialean inskribatuak egon beharko dute.
- 2.a) Europar Erkidegoko estatu kideetakoak diren enpresa ez espainiarrek obratzeko gaitasuna badutela egiaztatzeko, zeinetan establituak dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute, edo, bestela, zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat, aplikatzekoak zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera.
- 3.a) Aurreko paragrafoko baldintzak betetzen ez dituzten enpresa atzerritarren kasuan, obratzeko gaitasuna akreditatzeko, enpresa kokaturik dagoen lurraldean Espainiak duen Misio Diplomatiko Permanenteak edo Bulego Kotsularrak egindako txostena aurkeztu beharko dute, zeinetan adierazi beharko baita, aurrez enpresak akreditatu ondoren, Erregistro lokal profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean inskribatuak daudela edo, horren ezean, trafiko lokalean ohikotasunez dihardutela kontratuaren xedeak hartzen dituen jardueren esparruan. Kasu horietan, gainera, SPKLko 44. artikuluan aipatzen duen elkarrekikotasunaren txostena ere gehitu beharko da.

- 4.a) Baldin eta enpresari indibidual batek konkurritzen badu, Nortasun Agiri Nazionala erantsi beharko du, bai halaber, kasua hala bada, ahalordetzeko eskritura, behar bezala legezkotua, edo haren fotokopiak, behar bezala autentikatuak.

b) Errepresentazioa egiaztatzen duten agiriak

- 1.b) Besteren izenean agertzen direnek edo proposamenak besteren izenean sinatzen dituztenek errepresentazioaren ahalordearen kopia aurkeztuko dute, Korporazioko idazkariak askietsia.

Baldin eta lizitazailea pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritzako Erregistroan inskribatua agertu beharko du, legeak hala beharresten duenean.

Era berean, errepresentaziorako askietsitako ahalordea duen pertsonak bere nortasun-agiri nazionalaren lekukotza notariala edo fotokopia administratiboki konpultsatua ere aurkeztu beharko du.

c) Erantzukizuneko deklarazioa, zeinetan adieraziko baitu ez dela aurkitzen Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekok 49. artikuluan jasotako kontratatzeke debeku-kasuetako batean.

Deklarazio horretan, gainera, adieraziko du egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako betebeharrak tributarioak eta segurantza sozialarekikoak betetzeari doakionez, alde batera utzirik ezen eskakizun horren sinestamendua behin betiko adjudikazioaren aurretik aurkeztu beharko duela adjudikazio hori esleitzen zaion lizitazaileak. Deklarazio hori II. Eranskin gisa ageri den ereduaren arabera egin beharko da.

d) Enpresaren sailkapena egiaztatzen dutenek, kasua hala bada, edo solbentzia ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren eskakizunak justifikatzen dituztenek.

Kontratu honetan, eskakizun horien ordez, baldintza-agiri honetan beharretsiriko sailkapena eskatuko da.

Estatuko Lizitazaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatua egonez gero, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 130.1 artikuluan aipatzen diren dokumentazioen ordez, erregistroak eginiko egiaztapen bat aurkeztu beharko da,

lizitzaileak formulariko erantzukizuneko deklarazio batekin, non adieraziko baitu ez dela aldaketarik gertatu egiaztagirian agertzen diren zertzeladetan. Adjudikatario gertatuz gero, adierazpen hori errepikatu egin beharko da, kontratua formalizatzen den dokumentuan.

Modu berean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuak dauden lizitzaileek.

- e) **Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztuko dute, zeinetan adieraziko baitute beren buruak Espainiako edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dituztela kontratutik zuzenean edo zeharbidez sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta, kasua hala bada, uko egiten diotela lizitzaileari atzerrian legokiokeen foru jurisdikzionalari.**

<> GUTUN-ESTALKIA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

- a) **Proposamen ekonomikoa**

III. Eranskin gisa doan ereduaren arabera aurkeztuko da.

- b) **Automatikoki kuantifikatu behar diren prezioaz bestelako ebaluazio-irizpideei buruzko agiriak.**

<<C>> GUTUN-ESTALKIA

BALIO-IRIZPEN BATEN BIDEZ PONDERA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA.

Hemen sartuko dira balio-irizpen baten mende dauden irizpideak ebaluatzeko beharrezkoak diren agiriak, balio-irizpen horrek kopuru edo portzentajeen bitartez ebaluatzea eragozten badu.

22. klausula.- KONTRATAZIOKO MAHAIA

Kontratazioko Mahaia, Sektore Publiko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak Bigarren Xedapen Gehigarriko 1. puntuan ezartzen duenaren arabera, eta lege hori partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretuaren 21.2 artikuluekin loturik, presidente batek, idazkari batek eta gutxienez lau mahaikide bozdunek osatuko dute, guztiak ere kontratazioko organoak izendatuak. Mahaikide bozduen artean, nahitaez egon beharko dute kontratazioko organoaren aholkularitza juridikoa bere gain duten funtzionarioetako batek eta kontu-hartzaile batek, edo, horietako edozeinen ezean, organoaren aholkularitza juridikoari eta kontrol ekonomiko eta aurrekontuzkoari dagozkion funtzioak esleituak dituen pertsonak.

Kontratazioko Mahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

- Presidentea, zeina Udalbatzako alkate presidentea izango baita, edo hango kide zeinengan delegatzen duena.
- Bi mahaikide bozdun, Alkatetzak Udalbatzako zinegotzien artean izendatuak.
- Udalbatzako idazkaria, edo hirigintzako teknikaria, aholkulari juridiko moduan.
- Funtsen kontu-hartzailea.
- Idazkari bat, kontratazioko organoari atxikitako funtzionarioen artean izendatua.

23. klausula.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK IREKITZEA

- 1.- Behin eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan, espediente administratiboaz arduratzen den unitateak, behar diren teknikarien kolaborazioarekin, **A estalkian** sartuak dauden dokumentuak aztertuko ditu eta horiei buruzko txostena egingo dio Kontratazioko Mahaiari, zeinek dokumentu horiek kalifikatzeri ekingo baitio.

Baldin eta mahaiak akats materialik ikusten badu lizitatzailerik aurkezturiko dokumentazioan, eman ahalko dio lizitatzailerari, komenigarri baderitza, gehienez ere hiru egun balioduneko epe bat, arren-eta hark aurkeztutako dokumentazioan hauteman diren eta konpontzeko moduak diren akatsak edo omisioak zuzen ditzan.

- 2.- Behin dokumentazioa kalifikatutakoan eta aurkeztutako dokumentazioan leudekeen akatsak edo hutsegiteak erremediatutakoan, Mahaiak onartuak deklaratuak ditu lizitatzailerik, betiere baldintza-agirian adierazitako aurretiazko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatuta badute.
- 3.- Udalaren iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuak den iragarpenean zehazturiko lekuan, egunean eta orduan, eta edozein kasutan ere eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere

hamabost eguneko epean, **C gutun-estalkian** sarturiko proposamenak —balio-irizpen baten arabera ponderatzekoak diren irizpideak dauzkatena— irekitzeko ekitaldi publikoa egingo da, eta horretarako bilduko da kontratazioko mahaia.

Idazkariak ekitaldiaren akta idatziko du, zeinetan fidelki jasoko baitu mahaiaren deliberazioen emaitza.

Baldin eta **C estalkian** akatsik edo omisiorik hautematen bada, Mahaiak bost egunetik beherako epea emango du horiek erremediatzeko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretuko 27. artikulua arabera.

Proposamen horiek irakurritakoan, Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatzen ahalko ditu, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoei helaraziko dizkie, baldintza-agiri honetan ezarritako irizpide eta ponderazioen arabera ebalua ditzaten.

- 4.- Kontratazioko Mahai berriro bilduta, ekitaldi publikoan emango da ezagutzera balio-irizpen baten mendeko irizpideei esleituriko ponderazioa. Jarraian, **B estalkiak** irekitzeari ekingo zaio.

Ekitaldi publikoa amaitutakoan, aurkeztutako proposamenek dagokien txosten teknikoa jasoko dute, automatikoki ponderatzekoak diren irizpideak (B estalkia) ebaluatuko dituenak. Ondoren, Kontratazioko Mahaiak organo eskudunari zuzenduko dizkio aurkeztutako proposamenak, aktarekin eta aproposa deritzon proposamenarekin batera, zeinak betiere adjudikazioko irizpideen ponderazioa jasoko baitu, hark adjudikazioaz erabaki dezan.

24. klausula.- DOKUMENTAZIOAREN ERREKERIMENDUA

1.- Kontratazioko organoak eskaintza ekonomikoki onuragarrienarena aurkeztu duen lizitatuileari errekerituko dio hamar egun baliouduneko epean aurkez ditzala, errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik kontaktzen hasita, betebeharrak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetzeaz den bezainbatean egunera dagoela egiaztatzen duten sinestamenduak, edo kontratazioko organoari baimena eman diezaiola hark zuzenean eskura dezan horren akreditazioa, eta orobat aurkez ditzala 53.2 artikulua ezartzen duenaren arabera kontratua gauzatzera dedikatzen edo adskribatzeko hitzeman dituen baliabideak benetan badituela eta dagokion berme behin betikoa jarri duela egiaztatzen duten sinestamenduak.

2.- Seinalaturiko epearen barruan errekerimendua behar bezala bete ez badu, ulertuko da lizitatuileak bere eskaintza erretiratu egin duela; kasua hori bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatuileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

25. klausula.- BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIOA

1.- Eskatutako dokumentazioa jasotakoan, kontratazioko organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua.

2.- Ezein kasutan ere ezingo da lizitazioa esleitu gabetzat deklaratu baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onartzeko moduko eskaintza edo proposamenen bat badago.

3.- Adjudikazioak arrazoitua izan beharko du, hautagai edo lizitatzaillei notifikatu egingo zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean publikatuko da.

Nolanahi ere, notifikazioak nahikoa informazio eman behar du, lizitatzaille baztertuak edo hautagai deskartatuak adjudikazioko erabakiaren kontra nahikoa funtsatutako errekurtsua jarri ahal izateko, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 135. artikuluan seinalaturiko alderdiak adieraziz, abuztuaren 5eko 34/2010 Legeko aldaketaren arabera.

4.- Notifikazioan eta kontratatzailearen profilean, haren formalizazioa zein epetan egin behar den adieraziko da.

Aurkezturiko proposamenak, hala onartutzat deklaratuak nola ireki gabe baztertuak edo ireki ondoren atzera boteak, beren espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatutakoan eta errekurtsuak jartzeko epeak igarotakoan, inork halakorik jarri ez badu, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesatuen eskura geratuko da.

26. klausula.- KONTRATUAREN/ZESIOAREN FORMALIZAZIOA

Kontratuaren formalizazioa behin betiko adjudikazioa notifikatzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasi eta hamar egun balioduneko epearen barruan egingo da, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sarbidea izateko. Baldin eta obrak Enpresarien Batasun bati adjudikatzen bazaizkio, batasun horren eraketa akreditatu beharko dute, eskritura publikoan, kontratua formalizatzeko emandako epearen barruan, bai eta enpresa-taldeari esleituriko IFZ ere.

Adjudikatarioak eskatzen ahalko du kontratua eskritura publiko bihurtzeko, baina horri dagozkion gastuak bere kargura joango dira.

Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak lagatzen ahalko zaizkio beste hirugarren bati, betiere SPKLko 209. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

27. klausula.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK ETA PAGARAZ DAKIZKIOKEEN GASTUAK

Honako kontratu honen erregimen juridikotik segitzen diren betebeharrak orokorrean gain, ondoko betebeharrak espezifiko hauek izango dira:

1.- Kontratatzaileak Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera emango du zerbitzua. Beraz, kontratatzaileak zerbitzua ematen duen bitartean herritarrei edo udalari egiten dizkien agiriak, txartelak, oharra eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta euskarari emango dio lehentasuna.

2.- Kontratista obligatua dago arlo laboralean, Segurantzaren Sozialekoan eta Laneko Segurtasun eta Higienekoan nahiz laneko arriskuen prebentzioan indarrean dauden xedapenak betetzera.

3.- Kontratista obligatua dago obrak iragartzeko kartelak bere kontura instalatzera, eta halaber jarri beharko ditu indikaziozko seinaleak, zeinek adieraziko baitituzte obrarako sarbidea, lanek okupaturiko zonako zirkulazioa eta haien martxagatik arriskua izan dezaketen puntuak, hala zona horretan bertan nola haren mugetan eta ingurunean. Seinalizazio-kartel horiek euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta euskarari emango zaio lehentasuna. Proiektuak, txostenak eta bestelako idatzi luzeak ere euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.

4.- Kontratatzaileak Aginduen eta Intzidentzien Liburuak eraman beharko ditu, aldezturik diligentziatuak, Estatuaren Obrak Kontratatzeko Kondizio Jeneralen Pleguko 8. eta 9. klausuletan jasotako xedapenen arabera.

5.- Kontratatzaileak bete egin beharko ditu Laneko Segurtasun eta Osasunerako Planen jasotako aurreikuspenak.

6.- Obrak bukatutakoan, adjudikatarioak bukaerako egoeraren planoak aurkeztu beharko ditu, obrak gauzatzen zirenean bitartean gertatu diren aldaketekin, paperean eta euskarri informatikoan.

28. klausula.- LANeko SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN PLANA

Gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, behin betiko adjudikazioa notifikatzen zaion egunaren hurrengotik kontatuta, adjudikatarioak Obraren Laneko Segurtasun eta Osasunerako Plan bat prestatuko du, Segurtasun eta Osasunerako Estudioari doitua, eta plan horretan analizatu, estudiantu, garatu eta osatuko ditu estudioan jasotako aurreikuspenak.

Plan horretan sartuko ditu, kasua hala bada, kontratistak proposatzen dituen prebentzioko neurri alternatiboen proposamenak, dagozkien justifikazio teknikoekin, eta ezingo dute Estudioan aurreikusitako babes-maila gutxitzea inplikatu.

Plana Udalak onetsiko du, obra abiatu baino lehen, aldez aurretik segurtasun eta osasunaren arloko koordinatzailearen txostena jasota, eta Agintaritza Laboralari jakinaraziko zaio. Tramite hori egindakoan, zuinkatzea egiaztatzeko akta egingo da, eta obra hasiko da.

29. klausula.- AZPIKONTRATAZIOA

Baldin eta, kontratuaren parte bat gauzatzeko, adjudikatarioak beste hirugarren batzuk kontratatzen baditu, SPKLko 210. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, bai eta Eraikuntzaren Sektorean azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Lege urriaren 18koan ezarritakoak ere. Azpikontrastei eta hornitzaileei pagatzerakoan, SPKLaren 211. artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

30. klausula.- PROIEKTUA ALDATZEA

Kontratazioko organoak dauka interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko prerrogatiba, betiere SPKLko 194, 202 eta 217. artikuluetan eta APKLEOko 158. artikulutik 162.era bitartekoetan xedaturikoari loturik.

31. klausula.- OBRAK ETETEA

Kontratuaren etenaldia gertatuz gero, SPKLko 203, 220 b) eta c) artikuluetan eta APKLEOko 103, 170 eta 171. artikuluetan xedaturikoa aplikatuko da. Etenaldi tenporal, partzial, total edo definitiboaren kasuetan, etenaldiaren akta egingo da, Klausula Administratibo Orokorren dokumentuko 64. klausulan ezarritako eskakizun eta formalitateekin.

32. klausula.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIOA

- 1.- Kontratazioko organoak dauka kontratu administratiboak interpretatzeko eta betetzerakoan agertzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Orobat, aldatu ahalko ditu kontratuak interes publikoko arrazoiengatik, eta erabaki ahalko du haiek deuseztatzea eta zehaztu deuseztatzearen ondorioak, betiere Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoan eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen 1098/2001 Errege-Dekretu

urriaren 12koan ezarritako mugen barruan eta seinalatutako baldintza eta ondorioei loturik.

Interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko dituen prerrogatibak baliatuz kontratazioko organoak hartzen dituen erabakiak, aurrez aholkularitza juridikoaren txostena badute, berehala izango dira bete beharrekoak.

- 2.- Kontratua prestatzeari, adjudikatzeari eta betetzeari buruzko auziak, bai halaber kontratu administratiboen interpretazioaz, aldaketaz, desegiteaz eta ondorioez sorturiko auziak, kontratazioko organo eskudunak ebatziko ditu. Haren erabakiek bukaera emango diote bide administratiboari, eta horien kontra administrazioarekiko auzietako errekurtsua jartzen ahalko da, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 21-1 artikuluan xedaturikoaren arabera, bai eta jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoaren arabera ere. Hori, ordea, ez da eragozpen izango interesatuek, nahi badute, berraztertzeko errekurtsua jar dezaten, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Prozedura Administratibo Komunari buruzko 30/2007 Legearen 116 eta 117. artikuluetan ezarritako moduan.

33. klausula.- **ERREGIMEN JURIDIKOA**

Honako kontratu honek izaera administratiboa du. Alderdiak espresuki geratzen dira baldintza-agiri honetan eta dagokion proiektu onetsian ezarritakoaren mende.

Baldintza-agiri honetan aurreikusi gabekorako, kontratua honako hauek aratuko dute:

- a.- Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak (SPKL).
- b.- Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoa partzialki garatzen duen 817/2009 Errege-dekretu maiatzaren 8koak.
- c.- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen 1098/2001 Errege-dekretu urriaren 12koak (maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-dekretua indarrean sartuz geroztik indarrean dauden artikulua).
- d.- Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koak.
- e.- Kontratazio administratiboa erregulatzen duen eta aplikatzekoa zaion beste edozein xedapenek.

f.- Osagarri moduan, arau zibil pribatuak aplikatuko dira.

34.- KONTRATISTAREN PROFILA.

<http://www.lasarte-oria.org/kontratazioa>

DILIGENTZIA: Lasarte-Oriako Udaleko Idazkaria naizen honek egiten dut, idatziz agerrarazteko ezen baldintza-agiri hau Alkatetzak 2011ko ekainaren 10ean emandako ebazpenaren bidez onetsi dela.

Idazkaria,

Stua.: Francisco Xabier A. Egea Jauregi jn.

I. E R A N S K I N A

Obren izendapena:

“A-14 Loidibarren” HIEko 1. EUari dagozkion P6 partzelaren eta partzela mugakideen urbanizazio osagarria.

Urbanizatzeko proiektua José Miguel Martín Herrera arkitektoak idatzia (Gurbain SLP)

I I . E R A N S K I N A

DEKLARAZIOAREN EREDUA

(Pertsona naturala edo fisikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, deklaratzeko Administrazio Publikoarekin kontratatzeke ahalmenduta dagoela, zeren, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez baitago sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratzeko du ez duela santzio irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

(Sozietatea edo pertsona juridikoa denean)

___ jaunak / andreak, adinez nagusia, DNla ___ zenbakikoa eta bizilekua ___ helbidean duenak, zeinek ordezkatzeko baitu ___ enpresa, IFZ ___ zenbakikoa eta egoitza soziala ___ helbidean duena, deklaratzeko bai bera bai ordezkatzeko duen enpresa Administrazio Publikoarekin kontratatzeke ahalmenduta daudela, ezen eta, obratzeko gaitasun osoa izanik, ez daude sarturik Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Lege urriaren 30ekoak 49. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako ezeinetan, eta egunera dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio tributarioak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez.

Era berean, neure gain hartzen dut, adjudikatario gertatuz gero, baldintza-agiri honetan aipatzen diren dokumentuak aportatzeko konpromiso formala.

Partikularki, espresuki deklaratzeko du ez duela santzio irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik, SPKLko 49 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

(Lekua, data eta sinadura)

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

___ jaunak, bizilekua __ helbidean eta DNla ___ zenbakikoa duena, ___ herrian ___ datan jaulkia, bere izenean, edo ___ enpresaren ordean, zeinak IFK ___ zenbakikoa baitu,

AZALTZEN DU

LEHENIK

___ zenbakiko eta _____ datako PAOn eta ___ko Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarpenaren berri jakin duelarik, ados dagoela **“A-14 LOIDIBARREN” HIE-KO 1. EU-ARI DAGOZKION P6 PARTZELAREN ETA PARTZELA MUGAKIDEEN URBANIZAZIO OSAGARRIRAKO (I. FASEA)** obrak prozedura irekian, urgentziazko tramitazioz, eskaintza ekonomikoki onuragarrienari eta adjudikazioko hainbat irizpiderekin adjudikatzeko beharresten diren eskakizun eta baldintza guztiekin, eta lizitazioan parte hartuko duela.

BIGARRENIK

Ezagutzen dituela **“A-14 LOIDIBARREN” HIE-KO UE.1. EU-ARI DAGOZKION P6 PARTZELAREN ETA PARTZELA MUGAKIDEEN URBANIZAZIO OSAGARRIRAKO (I. FASEA)** Proiektua eta Klausula Administratibo Partikularren Agiria, eta espresuki asumitzen dituela eta osoki men egiten diela.

HIRUGARRENIK

Aipaturiko obrak Proiektu horretan eta Klausulen Agirian ezarritakoari loturik gauzatzera konprometitzen dela, zenbateko honetan: ___ euro (BEZa sartu gabe) eta ___ euro, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak (letraz eta zenbakiz).

LAUGARRENIK

Lasarte-Oriako Udala espresuki autorizatzen duela Foru Aldundiaren Zerga Administrazioa eta Segurantzaren Sozialaren Diruzaintza Orokorrera joateko eta errepresentatzen dutan enpresaren informazio tributarioa eta soziolaborala eskuratzeko, arren eta konpli daitezzen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 43.1.e) artikulua eta Langileen Estatutu Orokorraren 42. artikulua beharresten dituzten xedeak.

(Lekua, data eta proposamengilearen sinadura).